



Rikardo Arregi

Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (Andoain, 1942 - Mendaro, 1969). Idazle argi, sakon eta zorrotza, euskal prosa kazetaritzaren molde berrietan barrena abiarazi zuen. 1966ko urtarrilean Euskaltzaindiari alfabetatze saila antolatzeko proposatu zion, eta huraxe izan zen euskalduntzeko mugimenduaren hasiera. Idazlan nagusiak *"Politika Eestrukturak europear alkartasunean"* (1965); *"Politikaren atarian"* (1969); *"Herriaren lekuko"* (1972)...



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lantaila



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila

IX RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

196/97

IX RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

Kontuan hartuta euskararen normalkuntzak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, orohar, komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak IX Rikardo Arregi Kazetaritza Sarirako deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu Sari horren oinarriak:

LEHENA. 1996ko maiatzaren 16tik 1997ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan edo beste edozein forotan euskaraz ezagutzera eman diren lanek daukate sari honetan partehartzeko aukera, oinarriotan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA. Ondoko sei atalotan banatzen da saria:

- **komunikabideen berrikuntza.**
- **saiakera laburra.**
- **baloraziozko kazetaritza.**
- **erreportaia idatzia.**
- **ikusentzunezko erreportaia.**
- **kazetari berria.**

HIRUGARRENA. “Komunikabideen berrikuntza” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epealdian Epaimahaiaren iritzian komunikabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duen pertsona, komunikabide edo entitateari emango zaio. Teknologiaren eremukoak, erredakzioaren alorrekoak, publizitatearen esparrukoak edo beste zernahi arlotakoak izango dira Epaimahaiak aintzat hartu eta baloratuko dituen berrikuntzak. Edozein motatako berrikuntzek dute, beraz, lekua sari-atal honetan.

LAUGARRENA. “Saiakera laburra” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epealdian aldizkariaren batetan argitaratutako saiakerazko artikuluen eta beste edozein forotan ezagutzera emandako idazlanen (esate baterako, hitzaldi idatziak) artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio.

Atal honetan gutxienez sei foliotako neurria eta gehienez hogeita hamabost foliotakoa duten idazlanak izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

Fenomeno eta gertaera puntualatik areago doazen idazlanak izan beharko dira “saiakera laburra” atalean kontutan hartuko badira eta, edozeinetara ere, egileak aztergaiari buruz egindako hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorroztasuna, hala nola idazkeraren egokitasuna, aberastasuna eta kalitatea izango ditu kontuan Epaimahaiak saria erabakitzekoan.

BOSTGARRENA. “Baloraziozko kazetaritza” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epealdian prentsa idatzian argitaratutako zutabeen eta irrati edo telebistan plazaratutako iritzizko emandaldi laburren artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio.

Atal honetan, beraz, idazlan edo eta mintzaldi idatzi laburrak izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

Testuaren kalitatearen arabera erabakiko du Epaimahaiak saria, eta horretarako idazkera edo estiloa, mezu edo iritzi propioaren funtsa hitz gutxitan baina aldiberean beharbeste sakontasunez azaldu izana eta idatziaren bizitasun edo indarra hala nola gaurkotasuna hartuko ditu kontuan.

SEIGARRENA. “Erreportaia idatzia” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epean prentsa idatzian argitaratutako erreportaia Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio. Sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontuan, eta gutxienez ere hiru foliotako neurria duten lanak izango dira Epaimahaiak aintzat hartuko dituenak.

ZAZPIGARRENA. “Ikusentzunezko erreportaia” ataleko saria: lehen oinarrian aipatutako epean irrati edo telebistan plazaratutako ikusentzunezko erreportaia artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio, eta saria erabakitzerakoan, erreportaia estiloa eta orijinaltasuna hala nola gaiaren tratamendua kontuan hartzeaz gain, ikusentzunezko mediora egokitzearen egindako ahaleginaren kalitatea eta egokitasuna baloratuko ditu Epaimahaiak.

ZORTZIGARRENA. “Kazetari berria” ataleko saria: kazetaritzaren hastapenetan dabilzan zuzendutako saria. Praktikakako kontratupean edo bekadun gisa komunikabideren batetan ari direnek eta kazetaritzako ikasketak edo ikusentzunezko teknikei buruzko ikasketak ofizial eta arautuak egiten ari diren komunikabideren batetan lan-kontratu finkorik gabe lanean ari direnek edo kolaborazioaren bat egin/egiten dutenak partehar dezakete atal honetan. Euskal kazetaritza jardunean hasi berriak direnek edo oraintxe hasten ari direnek bakarrik jaso ahal izango dute, beraz, sari hau.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lan saritu ahal izango du atal honetan Epaimahaiak. Horrela, bada, lehen oinarrian aipatutako epean prentsa idatzian edo irrati edo telebistetan plazaratutako baloraziozko lan, erreportaia, informazio-programa, magazin eta abarren artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio saria. Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, nola baita ere hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke “kazetari berria” saria jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

BEDERATZIGARRENA. “Komunikabideen berrikuntza” ataleko sari-rako komunikabideek ez dute alde zuzenik ezer aurkeztu beharrik izango.

“Saiakera laburra”, “baloraziozko kazetaritza”, “erreportaia idatzia” eta “ikusentzunezko erreportaia” atalean ere ez da ezinbestekoa norberak alde zuzenik ezer aurkezte. Epaimahaiak

izango da egokien irizten duen moduan atal horietako sarietarako jarraipen eta hautaketa lanak egingo dituena. Nolanahi ere, eta esandakoagatik sarian partehartzeko ezinbestekoa ez bada ere, autoreek nahiz komunikabideek aurkeztu ahal izango dituzte beren lanak aipatu atal horietarako, eta, gainera, aurkeztu dituzten dei egiten zaie. Kasu horretan autore bakoitzak bere lanaren sei kopia bidali beharko ditu 1997ko maiatzaren 24a baino lehen geroago aipatzen den helbidera, beti ere zein sari-ataletarako den adieraziz. Gainera, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko dute autoreek, eta, irrati edo telebistako emandien kasuan, berriz, dagokion enpresak lizatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordez autorearen beraren zinpeko aitortpena igortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz.

“Kazetari berria” atalean autoreek beren lanak aurkeztu beharko dituzte, 1997ko maiatzaren 24a baino lehen gero aipatzen den helbidera lanaren sei kopia bidaliz.

Hona Sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbidea:

**Andoaingo Udaletxea
IX Rikardo Arregi Saria
Goikoplaza, z/g
20140 ANDOAIN**

HAMARGARRENA. Ondoko hauek izango dira Epaimahaiak osatuko dituenak:

* **Mahaiburua:** Andoaingo Udaleko Alkate Jose Antonio Perez edo honek bere ordez jarduteko izenda dezan udalkidea.

* **Mahaikideak:** Miren Azkarate anderea, Allande Boutin jauna, Andu Lertxundi jauna, Koldo Ordozgoiti jauna eta Iñaki Zabaleta jauna.

* **Idazkaria:** Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuburua, Patxi Baztarrika, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

HAMAIKAGARRENA. Honako hauek izango dira saritutako lanen autoreei emango zaizkien sariak:

1. “Saiakera laburra” atala: 425.000,- pezeta.
2. “Baloraziozko kazetaritza” atala: 425.000,- pezeta.
3. “Erreportaia idatzia” atala: 425.000,- pezeta.
4. “Ikusentzunezko erreportaia” atala: 425.000,- pezeta.
5. “Kazetari berria” atala: 225.000,- pezeta.

Guztira, beraz, 1.925.000,- pezeta banatuko dira saritan.

“Komunikabideen berrikuntza” atalean saritutakoari kaxa oroigarria eta agiri-diploma emango zaizkio.

Epaimahaiak bere esku izango du egoki edo beharrezko iritziko balu aipamen berezia egiteko aukera. Era berean, Epaimahaiak lanen maila ez dela egokia iritziz gero hutsik utzi ahal izango du saria. Apelaezina izango da Epaimahaiaren erabakia. Sarietarako buruz Epaimahaiak hartutako erabakia 1997ko udan emango da ezagutzera, egun berean egingo delarik sari-banaketa ere.